

# Nafarroan erabiltzen diren zenbait toki-izenez

PATXI SALABERRI ZARATIEGI

Hsteke esan behar dut artikulu hau J.M. Jimeno Juniorekin Nafarroan barna egindako zenbait inkesta eta bidaiaren ondorioa dela. Inkesta eta bidaia horien helburua beste bat bazen ere ikusi nuen bazirela zerbait idaztea merezi zuten dermio interesgarri batzu. Dermio horiek honako hauek dira: Iruñerria, Kokoerria, Kokoa, Iruinkokoa, Iruñeko Kokoa, Estellerria, Pardixerria(k) eta Pardixa(k).

Aipatuko dugun lehen hitza «Kokoa» da. Hau oso ezaguna da Nafarroan, Leitzatik eta Larraundik, Baztanen gaindi, Mezkiritzeraino. Dena dela, herri guztietan ez dute ezagutzen, batez ere Iruñetik urrun dauden ibarretan (Zazaitzu, Aezkoa...). Hala ere, hau ez da beti horrela, zeren Azkueren eta Lhanderen hiztegietan ikus daitekeenez, Iparraldean ere ezaguna baita hitz hau.

Hasteko, hiztegietako definizioak komentatuko ditugu. Azkuerenean esanahi bat baino gehiago dauka; guri interesatzen zaizkigunak lehena, bostgarrena eta zazpigarrena dira. Lehenaren arabera «kokoa» Iparraldean (BN, L, S) espainolei ematen zaien goitizena da; orain, ez da azaltzen «espainol»-tzat zer hartzen den, Euskal Herritik kanpokoak bakarrik edo Euskal Herrikoak (hots, euskaldunak) ere bai. Bostgarren puntuan hauxe paratzen du: «apodo de los habitantes del valle de Ulzama» eta parentesi artean AN-b azaltzen da, hau da, Baztango Goi Nafarrera. Honek esan nahi du baztandarrek direla ultzamarrei «koko» deitzen dietenak. Azkuerekin bukatzeko esan dezagun zazpigarren esanahia «bobo», «bobalicón» dela, eta hau bizkaiera osoan (bc).

Lhandek bere aldetik zera esaten digu, hots, «kokoa» «surnom donné aux Espagnols» dela. Ez du deus aipatzen ez Ultamaz eta ez Baztanez ere.

Inkestetara pasatuaz, herri bakoitzean dermio horri zer-nolako esanahia ematen dioten ikusiko dugu:

*Iragin* (Esteribarren), «kokoa» beheitikoa da, beheko jendea. Dena dela, kontzeptua ez dago oso ongi definitua eta batzuren ustez <sup>1</sup> «kokoerria» Iruñetik beheitiko lurraldea litzatekeen bitartean, beste batzurentzat <sup>2</sup>, Iragitik atera eta beherago gelditzen den lehen herrikoak (Urtasungoak) berak ere «kokoak» lirateke.

1. Jesus Lintzoain, Iragi, 65 urte.

2. Aurrekoaren anaia; ez dakigu zer izen duen.

Herri honetan kontatu zigutenez baztandarrentzat «kokoak» Esteribartarrak dira, eta beraz Baztanen «kokoak» ez da beheragokoa, kasu honetan, Iragi, Eugi eta beste, gorago, altuago daudelako, hegoaldekoa baizik, zeren Azkuerenean ikusi genuenez Ultzamarak ere kokoak baitira. Iragin esan zigutenez, behin Eugiko bat kexatzen ari zen haserre, oihanean, basotan aritzen ziren baztandar ugarietako batek «kokoak» deitu zielako eugiarrei: «baztandar putok, guri kokoak erraten zigutek, gu euskaldun osoak izakite». Eugiar honek gure informatzaileen ustez, «erdaldun»-tzat hartu zuen «kokoak» hitza, garbi esaten baitu beraiek euskaldun osoak direla.

Herri honekin bukatzeko esan dezagun «Iruñerrie» ere erabiltzen dutela, erdarazko «cuenca» esateko. «Kokoa» ere, itxura guztien arabera, Iruñerria da, baina ez hau bakarrik, Erdialdea eta Erribera ere (Erdialdea mendialdekoentzat Erribera da, Iruñetik beheiti) «kokoak» baitira.

*Eugin* «Cuenca» esateko «Iruñerrie» ibiltzen dutela dirudi; dena dela gure informatzailea <sup>3</sup> ez zegoen oso seguru horretaz. «Kokoa» eta «Kokoerrie» ere ezagutzen zituen, eta berak zioenez «beheitiarrak» izendatzeko erabiltzen da. Beheitikoak kasu honetan Urtasun edo Zubiritik beheitikoak direla dio. «Erdalduna», «belarrimotxa», adierazteko ibiltzen ote zuten galdetu eta seguraski baietz erantzun zigun, baina ez zegoela oso ziur honetaz.

*Mezkiritzen* galdetu genuen eta gure informatzaileak <sup>4</sup> ez zuen ezagutzen ez «Iruñerria» eta ez «kokoak» edo «kokoerria» ere. *Zilbetin*, bertan urte asko eman dituen mezkiritzar bati <sup>5</sup> galdetu eta zera esan zigun, alegia, «Iruñerria» ez zuela sekulan aditu, baina «kokoak» baietz, erdaldunendako erabiltzen zutela lehen han (*Zilbetin*), eta orain, zoritxarrez, ia guztiak zirela «kokoak», hots, erdaldunak.

*Auzan*, Ultzama haranean, «kokoak» hitzarekin bi gauza ezberdin adierazten dira: batetik Iruñerria bera, lurraldea alegia («kokuan gari ona aurteten») eta bestetik Iruñerriko biztanleak, hots, pertsonak («Heldu dituk kokuak»). Tokia adierazteko «Iruinkokoa» ere aipatzen du. Zernahi gisaz, ez da oso garbi gelditu elkarrizketan «Iruñerrie» erabiltzen duten ala ez; nere ustez informatzaileak <sup>6</sup> ezagutu behintzat, ezagutzen zuen. Honekin bukatzeko esan dezagun «kokoak»-k ez duela bat ere zentzu txarrik gure informatzailearen eritziz.

*Etxaleku-Amaiurren* <sup>7</sup>, kokoaren esanahia aldatzen da haranaren arabera. Imotzen, «kokoak» Iruñerrikoei esaten diete, Amalaindik beheitikoei. Baztanen berriz, «kokoak» Belatetik honunzkoei, eta Auritz, Aurizperri, eta inguru horretako herrietakoei deitzen diete «koko». Gure informatzaileak dioenez, Baztanen aunitz aldiz, behia erosi Auritzen, eta gero «koko» izena ematen diote behi horri.

*Oderitzen*, «Iruñeko kokoa» esaten da, «Iruñerria» aditzera emateko. Irurtzunen hasten da <sup>8</sup>, baina ez dago garbi non dagoen behealdeko muga.

3. Hilario Seminario, Eugi, 63 urte.

4. Juanita Agorreta, 75 urte inguru.

5. Daniel Errea, 70 urte ingurukoa.

6. Jose mari Berasain, 40 urte ingurukoa.

7. Pedro Aleman jauna Amaiurren sortu zen eta luzaroan Etxalekun bizi izan da. Gaur egun 75 bat urte izanen ditu.

8. Juan Aldaia, 40 urte ingurukoa.

Honelakoak esaten dituzte: «kokoan orain egongo da lainoa», «kokoak beti laino dago»... Bukatzeko esan dezagun jendea ere, hots, Iruñerrikoak, «kokoak» izan daitezkeela.

*Beuntzan*<sup>9</sup>, «Cuenca» esateko «Iruñerrie» ibiltzen dute; dena dela «kokoak» ere ezagutu eta erabiltzen dute, baina ez bakarrik «Iruñerria» adierazteko, nahiz honetarako ere enplegatzen duten. Esan zigutenez, «kokoak» Erribera zen, Iruñetik haratagoko lurraldea, baina Iruñetik goitikoa ere bai, Markalaineraino. Beraz, «Kokoa» «Iruñerria» baino zabalagoa da, azken hau ere lehen horren barruan dagoelarik. Jendearendako ere esaten ahal da «kokoak», Markalaindik beheitikoendako.

*Ziako* gure informatzaileetako batek esan zigunez<sup>10</sup>, «kokoak» eta «belarrimotza» sinonimoak dira, hots, «kokoak»-k euskaraz ez dakiena adierazten du. Jendearendako ibiltzen da beraz, «hoi kokoa da», Iruñe ondokoendako, baina tokiarendako ere bai, Iruñe ondoko eskualdea adierazteko; «Iruñerria» dermioa berriz, ezezaguna zaio. Dena dela, esan dezagun «Iruñerrikoak» eta «erdalduna» loturik badaude ere «koko» hitzean, lehenbizikoak duela lehentasuna («Iruñerrikoak»-k alegia), zeren Larunbe eta Eritzekoak, euskaraz ez jakin arren, ez baitira kokoa.

*Ziako* gure bigarren informatzailearen arabera<sup>11</sup>, «kokoak» beheitiko jendea da; bere ezagun bati «kokoak» esaten omen zioten Arlegikoa zelako. Erdaraz «el coco» dio, Iruñe inguruko lurra aditzera emateko. «Iruñerrie» ezagutzen ote duen ez dakigu, baina badirudi baietz.

*Urritzolako* gure informatzailearentzat<sup>12</sup>, «kokoak» Iruñerria bera (berak «Iruñerrie» dio) nahiz Erribera da. Pertsonak ere kokoa izan daitezke, Iruñerrikoak, Erriberakoak zein Lizarra aldekoak. Honekin bukatzeko esan dezagun «koko» hitza «itsusi antza» dela gure informatzailearen eritziz.

*Irañetan*<sup>13</sup>, «Iruñerrie» esaten dute edo erdaraz «tierra de Pamplona». «Kokoa» ere erabiltzen du herri honetako gure solaskideak, baina ez Iruñerriarra adierazteko, «persona motz, serio eta hitz gutxikoa» adierazteko baizik.

*Lizarraga-Ergoienan*<sup>14</sup>, «koko» hitza ez zuen ezagutzen gure informatzaileak. «Iruñerriya» [irũñerĩyà] berriz bai; hau, dirudienez, Aizkorbetik beheranzko lurraldea da; baina, dena dela, mugak ez daude ongi zehaztuak ez goitik ez behetik.

*Leitzako* gure solaskideak<sup>15</sup> «Iruñerrie» aditu du, Iruñe ondoko herriak esateko; adibidez «Iruñerrin garik onak die». «Kokoa» aldiz, pertsonentzat erabiltzen da, Lizarra, Tafalla, eta alderdi horietakoak adierazteko. Gure informatzaileak kontatzen duenez, lehen, beheko alde honetatik gariarekin Leitzara joaten zirenetako bati «kokotto» esaten zioten.

Hortaz, orain arte ikusitakoa laburtu nahi bagenu, esan beharko genuke «koko» dermioak normalki «behealde» eta «behealdekoa» adierazten duela.

9. Miguel Ezkurra eta Enrique Nazabal, biak 65 bat urtekoak.

10. Nicolas Orbegozo, 54 urte.

11. Hipólito Goñi, 86 urte.

12. J. Bautista Etxarren, 88 urte.

13. Miguel Esain, 55 urte inguru.

14. M.<sup>a</sup> Dolores Nabarro, 79 urte.

15. Narciso Sestorain «Martinmotxene»-k 80 bat urte izanen ditu orain.

Honen ondorioz, eta hizkuntz mugako euskaldunen hizkeretan, beste bi esanahi eratorri izan ditzake:

–«Erdalduna», «belarrimotxa», euskara ez dakiena, zeren hizkuntz mugako euskaldunentzat, agi denez, beheitikoak erdaldunak baitira.

–«Iruñerria» eta «Iruñerritarra», euskaldun askorentzat hau baita beheko lurralderik hurbilekoena.

Artikulu honetan mintzagai izanen dugun bigarren dermioa «Estellerria» da. Zoritxarrez, bakarrik bi informatzailek eman digute toponimo horren berri: Urritzolakoak <sup>16</sup> eta Lizarraga-Ergoienakoak <sup>17</sup>. Lehenaren arabera, «Estellerrie» Lizarra inguruko lurraldea da, «Iruñerrie» Iruñe ingurukoa zen bezal-bezala. Bigarrenaren eritziz ere «Estellerriya» [eštéjēriyà] Lizarra, Estella inguruko lurraldea da, Lezaundik beheiti hedatzen da, «harik eta beheko zeretaraino».

Ukitu behar ditugun azken dermioak «Pardixa(k)» eta «Pardixerria(k)» dira. Bi hitzok lehenengo aldiz *Abaurre Gaina*-n entzun genituen <sup>18</sup>; hemen Zaraitzun bezala, ez zuten ez «kokoa» eta ez «Iruñerria» ezagutzen, baina bai «Pardixa» eta «Pardixerria(k)».

«Pardixerriak», Nabaskozetik beheitikoak, Urraul Goiti eta Beitikoak, eta Artzibarrekoak dira, eta itxura guztien arabera, Romanzadokoak ere bai, Irunberriraino (hau barne). Zangoza ordea, kanpo geldituko litzateke, ez litzateke pardixerria izanen. Herri guzti hauetakoak, hots, pardixerrieta-koak, «pardixak» dira. Bi dermio hauek, batzutan «koko»-rekin gertatzen zen bezala, zentzu peioratiboa daukate; gure informatzailearen eritziz «Pardixerria»-k «lur txarra» edo esan nahi du.

*Zaraitzuko Esparzan* <sup>19</sup> ere ezagutzen dute «Pardixerria» [paṛdišēria] edo «Pardixarria» [paṛdišāria], eta gure informatzailearen ustetan, «Elukatxe eta hoiek dira Pardixerria», hots, Urraul Goitiko herriak. Gauzak saltzera joaten zen bati esaten omen zioten «pardixa», Pardixerrikoa zelako.

Jaurrietan <sup>20</sup>, oraindik ere ezagutzen dute «Pardixerria» dermioa. Gure solaskideak esan zigunez, Zaraitzutik Irunberriraino «herri txiki anitx dau-de»; herri guzti hauek «pardixerria» [paṛdišēria] delakoa osatzen dute; «terreno zati handi bat» da gure informatzaileen hitzetan, eta, bertan sartzen diren herrien artean hauek aipatzen ditu: Aristu, Aetxu, Jakoisti, Elkuatz, Irurozki, Ongotz, Sariketa, Adoain... Bere ustez, Urraul Goiti pardixerria da, eta Artzibar ere bai; «lur txarrean» kokaturik dauden «herri txiki» guzti horiek sartzen dira «Pardixerrian».

Beraz, laburbilduz, badirudi pardixerria, Aezkoa eta Zaraitzutik hegoalderantz dagoen eskualdea dela, Elkoatz eta Nabaskozetik, Irunberriraino, tarteko herrixka guztiak hartuaz. Eskualde honetakoak berriz, «pardixak» dira.

16. J. Bautista Etxarren.

17. M.<sup>a</sup> Dolores Nabarro.

18. Bitoriano Zelai (77 urte) eta Emilia Bidondo (79 urte).

19. Jazinto Ramirez Barberena (78 urte).

20. Xalbador Karrika «Eskujuri» (5 urte).

## RESUMEN

Este artículo, fruto de ciertas encuestas realizadas en diferentes lugares de la zona vascófona de Navarra (Iragi, Eugi, Mezkiritz, Zilbeti, Auza, Etxaleku-Amair, Oderitz, Beuntza, Zia, Urritzola, Irañeta, Lizarraga-Ergoiena, Leitza, Abaurre-Gaina, Zaraitzuko Esparza y Jaurrieta), trata de aclarar el significado que los euskaldunes de las mencionadas localidades dan a una serie de términos como son *Iruñerria*, *Kokoa*, *Iruinkokoa*, *Iruñeko Kokoa*, «Cuenca de Pamplona» y «natural de la Cuenca» principalmente, aunque tiene otros significados como «persona de pocas luces», «no-vascohablante», «Zona Media», «Ribera», y naturales de las mismas; *Estelleria* «Tierra Estella», y finalmente *Pardixerria(k)* y *Pardixa(k)*, que designan respectivamente la zona comprendida entre Aezkoa-Salazar y Sangüesa, y a los naturales de la misma.

## RESUME

Cet article, fruit de plusieurs enquêtes réalisées dans différents endroits de la zone bascophone de la Navarre (Iragi, Eugi, Mezkiritz, Zilbeti, Auza, Etxaleku-Amair, Oderitz, Beuntza, Zia, Urritzola, Irañeta, Lizarraga-Ergoiena, Leitza, Abaurre-Gaina, Zaraitzuko Esparza et Jaurrieta), tente d'éclaircir le sens que les habitants de langue basque de ces localités donnent à une série de termes comme *Iruñerria*, *Kokoa*, *Iruinkokoa*, *Iruñeko Kokoa*, «Bassin de Pampelune» et «originaire du Bassin» principalement, bien qu'il y ait aussi d'autres significations comme «personne à l'esprit borné», «personne ne parlant pas basque», «Zone Moyenne», «Ribera», et originaires de ces régions; *Estelleria* «Région d'Estella» et enfin *Pardixerria(k)* et *Pardixa(k)*, qui désignent respectivement la zone comprise entre Aezkoa-Salazar et Sangüesa, et les naturels de celle-ci.

## SUMMARY

This article, the result of a survey carried out in different places in the Basque speaking zone of Navarra (Iragi, Eugi, Mezkiritz, Auza, Etxaleku-Amair, Oderitz, Beuntza, Urritzola, Irañeta, Lizarraga-Ergoiena, Leitza, Abaurre-Gaina, Zaraitzuko Esparza and Jaurrieta), attempts to find out exactly what the Basque speakers of these villages understand by terms like *Iruñerria*, *Kokoa*, *Iruinkokoa*, *Iruñeko kokoa*. The majority understood 'Cuenca de Pamplona' (Valley of Pamplona) or 'native of the Cuenca', though other interpretations included 'a person who is rather dim', 'somebody who does not speak Basque', 'the middle zone of Navarra', the 'Ribera' or south of Navarra and natives of those two areas. Then *Estelleria* which refers to 'Tierra Estella' (Land of Estella) and finally *Pardixerria(k)* and *Pardixa(k)* which are the names given to the area between Aezkoa, Salazar, and Sangüesa as well as to the natives of the area.

